

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Osteguna, 2013ko urtarrilaren 24a. IX. urtea. 2.470. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Iñaki Zalakain, Leire Telletxea eta Miren Mujika Loatzo musika eskolako irakasleak

«Hezkuntzan gabezia handiak daude musikaren alorrean»

Loatzo musika eskolak hamar urte betetzen ditu, eta hori dela eta ekitaldi berezia egingo dute bihar, 19:00etan, Ibarako udaletxean; gaur egun, 615 ikasle dituzte zortzi herritan banatuta ◊4-5



Iñaki Zalakain, Miren Mujika eta Leire Telletxea, Loatzo musika eskolaren Villabonako egoitzaren gela batean. R. CALVO

Poca Tripa txaranga izango da aurtengo Inauterizale Kuttuna

Txaranga aurtren 50. urteurrena ospatzen duela-eta erabaki du Kabi Alai elkarteak Poca Tripari saria ematea ◊6

Lander Etxeberria absolbitu du Espainiako Auzitegi Nazionalak

Billabonatarren aurkako frogarik ez dagoela erabaki du auzitegiak; aurreko astean egin zioten epaiketa ◊3

Huyck Wangner enpresako 75 langile kalean geratzeko zorian daude

Zizurkilen dagoen lantegia Huyck Wangner multinazionalarena da; irabaziak izan arren, enpresa ixteko asmoa dutela salatu dute langileek ◊7

Jon Irazu Aizkolaria

«Honelako desafio luze batean neure burua ez dut inolaz ere favorito ikusten»

Jon Irazu zizurkildar aizkolaria Xabier Zaldua zumarragarraren aurka jokatu du desafioa, igandean, 12:00etan, Tolosako zezen plazan; hamalauna enbor ebakiko dituzte eta 12.000 euro daude jokoan ◊2



Irazu entrenamendu saioa egin ostean, Zizurkilen. I. TELLERIA



J. TELLERIA

Jon Irazu › Aizkolaria

Tolosako zezen plaza goi mailako aizkora desafio baten lekuko izango da, beste behin, igandean. 12.000 euro jokoan, Jon Irazu zizurkildarrak, Zumarragako Xabier Zalduarekin neurtuko ditu indarrak. Hamalauna enbor aurrean, nork lehenago ebaki

«Mentalki oso indartsu ikusten dut neure burua, irabazteko gai»

Julen Telleria Zizurkil

Paraje ederrean dago kokatua Zaldu Azpikoa baserria. Zizurkil goitik aurrera eginda, Adunaren eta Larraulen magalean. Bertan, entrenamendu saioa bukatu berri du Jon Irazu (Zizurkil, 1982) aizkolaria. Azken hiruzpalau hilabeteetan asko izan dira etxeko atarian ebaki dituen enborrak, igandeko desafioa prestatzeko lanetan.

Bere lehen apustua izango da, eta txapelketetan emaitza oso onak eskuratu baditu ere, badauka lehenengo aldiko kezka hori. Egin beharreko lanak ondo egin da, gustura ageri da Irazu, irribarretsu, apustuaren bezperatan.

Egun gutxiren faltan, nola ikusten duzu igandeko desafioa?
Errespetu osoz begiratzen diot igandekoari. Errespetuz, eta baita beldur pixka batekin ere. Jakin badakit ondo nagoela, oso indartsu iritsiko naizela hitzordura, baina aurkaria ere sasoiko egongo da. Gainera, beldur naiz plazara nola iritsiko ote naizen, plazak berak nola hartuko ote nauen. Hori igandean ikusi beharko dugu.

Fisikoki zein mentalki, behar bezala

prestatuta iritsiko zara Tolosako hitzordura?

Bai, mentalki oso indartsu ikusten dut neure burua, irabazteko gai. Fisikoki, berriz, katarro txiki bat pasa dut duela bizpahiru egun, baina honezkero ondo errekupeatu naiz. Espero dut horrek eragin handiegirik ez izatea. Gai nontzean, puntu onean iritsiko naiz desafiara.

Behatzeko lesio baten erruz norgehiagoka atzeratu behar izan zenuen. Ondo errekupeatu zara?

Bai, hiru bat astez geldirik egon nintzen behatza erabat sendatu arte. Zalduak, hasiera batean, urtezahar inguruan jokatu nahi zuen apustua, baina nik lesioagatik eguna atzeratzea erabaki nuen. Geldialditxoaren ostean gogorra izan da berriz ere entrenamenduetara itzultzea, baina behatza erabat sendatu zait. Igandean ez da horren aitzakiarik izango.

Nola hartu zenuen Zalduak desafioa zuri zuzentzea?

Bigarren mailako Euskadiko Aizkolaria Txapelketa irabaztetik nentorren, eta espero nuen handik edo hemendik desafioren bat etortzea. Hala ere, sekulako sorpresa izan zen niretzat Zalduaren

deia. Gainera, horrelako apustuetan horrenbesteko esperientzia duen aizkolaria baten aurka aritzea ohorea da niretzat. Asko poztu ninduen desafioaren berriak.

Zein da zehazki osatu beharreko lana?

Hamalau enborrekin ariko da bakoitza. Launa oinbiko eta hamarrena kanaerdiko izango ditugu, ahalik eta denbora gutxienean ebakitzeko. Lanak bukatzen azkarrenak irabaziko du apustua. Txapelketetan ondo aritzen zarelako badakigu, baina zer moduz moldatuko ote zara honelako desafio batean?

Txapelketetan lanak, egia esan, nahiko motzak izan dira orain artean, eta aurrean daukagun erronka honek dobleko lana suposatuko digu, gutxienez. Hor narbarituko dut, nik uste, alderik handiena. Baina ikusi egin behar da, zezen plaza batean, apustu batean, buruz buru aritzean... nola erantzuten dudun.

Zein da honelako apustuek eta txapelketek duten desberdintasuna?

Txapelketetara lasaiago joaten gara, horrenbesteko presiorik gabe, ahalik eta lan txukunena egitera. Gainera, jende gehiagok hartzen dugu parte, eta egon lite-

keen protagonismoa ere banatu egiten da. Apustuen kasuan, ordea, erronka handiagoa izaten da, data jakin bat eta helburu zuzen bat jartzen dizkiozu, eta aurkariari irabaztean besterik ez duzu pentsatzen. Begirada guztiak ere gu biongan bakarrik egongo dira jarrita, eta horrek presioa areagotzen du.

Lan motzak egiten ikusi izan zaitugu orain artean. Hau iraupeneko lasterketa izango dela kontutan hartuta, prestaketa berezirik egin duzu?

Bai, hori landu behar izan dut gehienbat. Lehendik ere mendian eta asko ibiltzen nintzen, baina orain, bizikletan ere entrenamendu dezente egin ditut, eta aizkoran ere saio luzeagoak egiten aritu naiz. Giharrak oso puntu onean dauzkat, eta zentzu horretan indartsu sentitzen naiz. Indar horiek neurtzen eta saio osoan zehar eusten izango ditut lanik handienak.

Nola ikusten duzu aurkaria?

Ez daukat inongo dudarik oso ondo prestatuta iritsiko dela. Beti ematen du bere onena, eta gainera oso plaza gizona da. Ziur nago estu hartuko nauela.

Olasagasti bezalako izarren aurka lehiatu izan da Zaldua. Zuretzat, be-

rriz, lehenengo apustua izango da. Abantailarik badu berak?

Abantaila handia, gainera. Berak badaki gorputzak nola erantzuten dion honelako apustu baten aurrean, eta badaki nola jokatu behar duen. Ni, berriz, berria naiz honetan, eta eguna eta ordua iritsi arte ez dut jakingo nola erreakzionatuko dudun. Horrexek ematen dit errespetu pixka bat.

Zalduak esan du orain arteko bere erronkarik zailena izango dela igandekoa. Faboritotzat daukazu zeure burua?

Egia esan, entzundakoaren arabera, badirudi ni naizela jendea-



Badakit ondo iritsiko naizela, oso indartsu nagoela, baina aurkaria ere sasoiko egongo da»

«Indarrak neurtzen eta saio osoan zehar eusten izango ditut lanik handienak»

«Honelako desafio luze baten aurrean, neure burua ez dut inolaz ere faborito gisa ikusten»

«Dirua baino, ohorea da jokoan dagoena, nor izango ote den bestea baino gehiago»

JON IRAZU
Aizkolaria

ren faboritoa. Lan motzetan ondo aritu izan naiz, baina honelako desafio luze baten aurrean, neure burua ez dut inolaz ere faborito gisa ikusten. Are gutxiago, Zalduak apustuen munduan daukan esperientzia eta trebetasuna ikusita. Fondo handiko mutila izanda, nik bera joko nuke faborito.

Oinbikok zuk zeuk jarriko dituzu, eta kanaerdikoak Zumarragakoak ekarriko ditu. Egurretan egon daiteke gakoa?

Berak, normala den bezala, komeni zaizkion egurrak ekarriko ditu. Fondo gehiago daukanez, lanak luzatzen joko du, eta horregatik, egur gogorrek espero ditut. Baina nik ere ez ditut batere bigunak eramango, beraz, lan luzea izango dugu aurretik. Apustu gogorra izango da.

Jokoan dauden 12.000 euroak presio ala motibazio izango dira zuretzat?

Dirua baino, ohorea da jokoan dagoena, nor izango ote den bestea baino gehiago. Noski, diruarena niretzat presioa da, izan ere, norberak jarri beharreko 6.000 euroak biltzeko jende askoren laguntza izan dut, eta erantzukizun handia da niretzat horrenbeste lagunen diruarekin jokatzeko. Baina gisa honetako apustu bat aurrera ateratzeko jokatu beharra dago honelako diru kopuru bat, bestela axolagabetzat hartu liteke norgehiagoka.

• tolosaldean@hitza.info

Lander Etxeberria billabonatarra absolbitu dute

Bere aurkako frogarik ez dagoela ebatzi du Espainiako Auzitegi Nazionalak; aurreko astean izan zen epaiketa

Imanol Garcia Landa Villabona

Villabonako Lander Etxeberria absolbitzea erabaki du Espainiako Auzitegi Nazionalak. «Taldea terroristarekin» kolaboratu zuenik ezin dela esan ebatzi du auzitegiak. ET'ari laguntzea egotzita epaitu zuten joan zen astean, Le-

gorretako Aitor Esnaolarekin batera, baina auzitegiak ebatzi du ez dagoela esaterik Etxeberriak erakunde armatuari lagundu ziola. Esnaolari, berriz, hamazazpi urteko zigorra jarri dio auzitegi horrek. «Taldea terroristako kide» izatea egotzita, zortzi urteko zigorra, eta bederatzikoa, armak eta lehergailuak edukitzeagatik. Espetxetik irteten denetik aurrera, sei urteko inhabilitazioa ere jarri dio auzitegiak Esnaolari.

Epaiketan Fiskaltzak zazpi urte t'erdiko espetxe zigorra eskatu zuten Etxeberriaren aurka, eta akusazio partikularrak, Aso-



Lander Etxeberria, Villabonan. A.M.AZ

ciacion de Victimas del Terrorismo elkarteak, bederatziko urtekoa. Bere aldetik defentsa abokatuak absoluzioa eskatu zuen. Deklarazio polizialean bezala, epaiketan ere, bere aurka inongo frogarik ez zutela aurkeztu esan zuten Etxeberriak. Zehazki, «koinputatu batek torturapean egindako deklarazioa bakarrik» aurkeztu zutela esan zuten.

2011n atxilotu zuten Etxeberria Guardia Zibila, Igor eta Aitor Esnaolarekin batera, eta inkomunikatuta eduki zituzten. Hirurek tortura gogorrek jasan zituztela salatu zuten.

Gutuna

Hezkuntza publiko eta euskaldunaren alde

PPren gobernuak eta Wert hezkuntza ministroak, hezkuntza sistemaren kontrarreforma frankista onartu nahi dute: LOMCE. Hori inposatzea lortzen badute, atzerapauso ikaragarria izango da hezkuntza publikoarentzat eta beraz, langileentzat eta gizarte sektore kaltetuenentzat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen urteetarik ikasleak etengabe banatzea ekarriko du, oztopoak jarriz. Bata bestearen atzetik, kualifikazio handiagoa duten kurtsoetara pasatzea eragozteko, guri mailako Lanbide Hezkuntzara, Batxilerrera edo Unibertsitate-ara. Hiru amaiera azterketa ekarriko ditu: bata DBH 4ean, bestea 2. batxilerrera, eta ondoren unibertsitate sartzekoa. Ikasleen eta irakasleen eskubide demokratikoen murrizketa historiko bat izango da ikastetxe barnean. Jada planteatu da greba eskubidea kentzeko mehatxua, eta administrazioak hautaturiko zuzendari «diktadorearen» irudi berria inposatuko du.

Gainera, LOMCEaren helburu da euskara, galegoa eta katalana laugarren hizkuntza gisa jarzea lehen eta bigarren hezkuntzan. Lege berriak hizkuntzak hiru kategoriatan bereizten ditu: enborrekoak (gaztelera eta lehen atzerriko hizkuntza), espe- zifikoak (bigarren atzerriko hizkuntza) eta espezialitatea (euskara, galegoa, katalana). Lehenek ordutegiaren %50a hartu beharko dute gutxienez, bigarrenek %50a gehienez eta hirugarrenek ez dute denbora minimo bat zehazturik. PPre- n gobernuari izango da enborreko hauen edukia eta gutxieneko ordutegia erabakiko dituen, baita espezifikoen gehieneko ordutegia ere.

Neurri honek batez ere Kataluniari eragiten dio, murgiltze

linguistikoko eredu bakarra baitu. Erabateko arrakasta izan duena. Lerro linguistikoetan zatiketa eragozten du eta frogatuta dago katalanek ongi hitz egiten eta idazten dutela gaztelaraz.

Eredu hori frankismoaren aurkako borrokaren bidez eraiki ahal izan zen, milaka eta milaka langile emigranteren eta katalanen babesarekin, katalana hezkuntza publikoko hizkuntza gidari gisa defendatu baitzuten. Euskal Herriaren aldiz (eta baita Galizian ere) ezagutzen dugu nora daraman lerro linguistikoetan zatitzen duen ereduak. Euskarak Euskal Herri barnean hizkuntza minorizatu gisa bazterturik egoten jarraitzen du. Neurri berri honekin euskarak, azken urteetako aurrerapausoen ondoren, berriz atzera egiteko arriskua izan dezake.

Oinarritzkoa da kontrarreforma hau gelditzea eta horretarako beharrezkoa da ikasleen eta langileen indarrak elkartzera. Hori dela eta, Euskal Herria Sozialistatik babestu egiten dugu hezkuntza publikoaren defendatuz ikasle Sindikatuak Euskal Herriaren eta Sindicato de Estudiantese- n Estatua guztian zehar deitu duen borroka aste berria. LOMCEa berehala atzera botatzea, eta Wertek dimititzea eskatzen duena.

Aste honen barnean 72 ordu- tako ikasle greba orokorra sartz- en da datorren otsailaren 5, 6 eta 7an. Honekin batera, babesa eman nahi diogu LOMCEaren aurka ELA, LAB eta STEE- ELAS-ek martxoaren 2rako proposatu duten mobilizazioari. Dei egiten diegu langileen sindi- katuei eta ikasle erakunde- ei bi mobilizazio hauei babesa emateko. Asko dago jokoan eta ezin diegu utzi iraganean hainbeste sarkifizioekin lortzea kostatu ziren eskubideak kentzen.

■ **Ibon Artola**, Euskal Herria Sozialistako kidea.

Guraso eskola abian jarri dute Samaniego ikastetxean

Zortzi saio antolatu ditu ikastetxearen elkarbizitza behatokiak, Ana Elosegi Uranga psikologoaren eskutik

E. Maiz Tolosa

Badira bost ikasturte Tolosako Samaniego Ikastetxean Urteko Elkarbizitza Plana osatzen dutela. Elkarbizitza positiboa sustatzea xede duen egitasmo horren inguruan jarduerari aitzin antolatu dituzte eskola komunitateko partaideentzat. Plangintza horren euskarri nagusienetakoa prestatuntza dela azaldu dute Samaniegotik. Azken ikasturteetan hezkuntzarekin lotura duten hainbat gai jorratu dituzte familientzat antolatu diren saioetan, eta ikasturte honetarako «treba- kuntza sendoago bat» antolatzea erabaki du ikastetxeko elkarbizitza behatokiak, guraso eskola abian jarriz. Ordu eta erdiko zortzi saio antolatu dituzte, Ana Elosegi Uranga psikologoaren eskutik. «Gurasoen erantzuna altua izan denez, bi talde osatu ditugu seme-alaben adinaren arabera», zehaztu dute Samaniegotik.

Guraso eskolaren dinamika «parte hartzean oinarritzen da, hau da, denok elkarrengandik ikasten dugu», azaldu dute ikastetxetik. Ez da beharrezkoa ezagupen bereziak izatea, bizitzak berak ematen dituen esperientzi- etatik jasotzen dira elkar trukatzeko ezagupenak.

Bi helburu nabarmendu dituzte egitasmoa martxan jartzekoan. Batetik, «seme-alabek dituzten arazo eta jokaera zailak aurre egiteko estrategiak eskaintzea». Bestetik, «familia, sozializatzeko eta hezteko eragile indartsua izai-



Samaniego ikastetxearen guraso eskolaren saioetako bat. HITZA

ki, bere barne funtzionamendu egokia sustatzea, haurren garapenean prebentzio mailan egin daitekeen ekintza garrantzitsue- na baita».

Hausnarketarako tartea

Ana Elosegi dioenez, «guraso eskola bat antolatzearen beharra justifikatzeko ezinbestekoa da hausnarketa bat egitea gaur egungo gizartearen hain presente dagoen kontzeptu bati buruz: abiadura». Egungo «bizimodu az- karrak» pentsatzeko tarreak eta etenaldiak egiteko ahalmena kentzen dutela dio Elosegi. «Guraso eskolatan aita-ama izatearen ezagupenak garatuko ditugu, aitatasun eta amatasun positibo bat nola eraiki ikasiko dugu, honek guztiak haurren nortasun- naren eraikuntzan lagunduko baitigu», azaldu du.

Gurasoentzako hausnarketa denbora behar dela dio Elosegi, «kontzientzia hartze, desdramati- zatze une-tartea». Bertan, familia- egoerak aldatzeko estrategiak

bila ditzaketeela azaldu du, «beti baitago zer hobetu». Beste gurasoen esperientziak entzun ahal izateak bakoitzaren barnean dau- den baliabideak martxan jartzen lagundu dezaketeela esan du, «normalean erabiltzen ez diren horiek, hain zuzen ere. Ideiak truka- tzea gurasoen autoestimua indartzeko balio du».

Gizartea garatzen doan heine- an baloreak ere aldatzen doazela esan du Elosegi. «Gaur egungo zailtasunetako bat haurrekin pasatzen den denbora urria da. Hez- kuntzan, kalitatea baino kantitate garrantzitsuago dela irudi- tzen zait», azaldu du. «11untzeko 20:30ean, nekatuak, etxeratan gara: seme-alabak eskolara eram- an, etxea txukundu, etxetik kanpo lana egin, erosketak, eskola- kanpoko ekintzetara seme- alabak eramanez eta ekarri, etxetik lanetan lagundu... Ba ahal dugu oraindik kemenik, elkar ulertze edo empatia apurririk gure seme- alabei lasai erantzuteko?», haus- nartu du Elosegi.

Poca Tripa txaranga izendatuko dute, 2013ko Inauterizale Kuttun

Aurten, lehenengoz, internet bidez eskuratu ahal izango dira zezen plazara sartzeko sarrerak

Itzea Urkizu

Datorren otsailaren 7an lehortuko dira inauteriak Tolosan, eta azken urteotan bezalaxe, aurten ere, Kabi Alai elkarteak Inauterizale Kuttuna izendatuko du: Poca Tripa txaranga izango da, 2013ko Inauterizale Kuttuna.

San Bernardo aisialdi taldea izan zen lehen izendapena jaso zuena, 2011n, eta Eduardo Chocano tolosarrak izan zuen, iaz, suzuria botatzeko aukera. Bi kasuetan, Tolosako inauteriak are bi-ziago egiteko jarritako aleagatik jaso dute saria, eta bide berari jarraitu dio Poca Tripak ere. Izan ere, 50 urte beteko ditu Poca Tripak, eta Kabi Alaiko kideek errekonozimendu hau eskaini nahi izan diete.

Tomas Hernandezek egindako kartel ofizialak dion moduan, otsailaren 7an inauteriak hasi baino lehen, izango da festari begira prestatu beharreko konturik, ordea. Horren adibide dira, besteak beste, zezenak ikusi ahal izateko sarrerak.

Datorren otsailaren 4an jarriko dituzte salgai, eta 2013ko inauterietako berrikuntza nabarmena, internet bidez erosteko aukerarena izango da. Alde batetik, betiko erosketa modua nahiago dutenentzat, Leidorreko leihatila irekiko dute, txartelak erosteko. Baina era berean, «etxetik mugitu ere egin gabe»; <http://www.barrabarra.eu> interneteko atarian bertan eskuratu ahal izango dira, inauterietako zezen-festetarako

↓ Iragarki laburrak

SALGAI

Haur kotxea. Bikientzako kote-kapota eta aulkixoak saltzen ditut, oso egoera onean. Prezio interesgarrian eskaintzen ditut. Deitu 605 8310 23 telefono zenbakira.

LANESKAINZA

Estetizista. Tolosarako estetizista bat behar dugu. Esperientzia baloratuko da. Interesatuek, deitu 943 65 58 37 edo 625 70 50 62ra.

sarrerak.

Aipatzekoa da, bai leihatilan, bai sarean, otsailaren 4ko 16:00etatik aurrera izango dela sarrerak erosteko aukera. Erosle bakoitzak, gainera, hamabost txartel eskuratu ahal izango ditu, gehienez ere.

Hainbat txartel zezenetarako
Sarrera arruntez gain, Tolosako zezen plazako palkoetan esertzeko zozketaren sistema darabil, azken urteotan, Tolosako Udalak.

Aurten ere jarraibide berari tiraz, palkoen zozketan parte hartu nahi dutenek kultur etxean eman

Poca Triparen
urteurrenaren harira saria ematea erabaki du Kabi Alai elkarteak

Txosnagunean
gauero izango dira kontzertuak; guztira 12 talde ariko dira bertan

beharko dute izena, urtarrilaren 30ean eta 31n; 10:00etatik 13:00era, edo 17:00etatik 19:30era joan beharko da. Zozketa, berriz, otsailaren lehen egingo dute, Zerkausion.

Ahalik eta zozketa bidezkoenaren bila, udalak baldintza argiak jarri ditu palkoen sarrerak eskuratzeko. Guztira 26 palko daude, eta bakoitzean 12 eserleku daude. Izena ematerakoan pertsona bat joanda ere, palkoan eseriko diren 12 lagunen izen-abizenak eta NAN zenbakia eman beharko dira. Palkoak osorik hartu beharko dira, beraz.

Bide honetan, datu guztiak azaltzen ez badira, datuak zuzenak ez badira edo datu batzuk talde batean baino gehiagotan baldin badaude, talde osoa zozketatik kanpo geratuko da. Gainera, talde bakoitzak, gehienez ere,

egun bakoitzeko palko bana erosi ahal izango du; 30 euro ordaindu beharko da palkoa.

Azkenik, beste bi txartel mota izango dira, zezen plazari dago-kionez: zezenaren aurrean korri egin nahi dutenek eskuratu beharrekoa, eta txarangaren atzetik zezen plazara sartzeko gonbidapena. Biak ala biak, datorren otsailaren 4tik aurrera eskuratu beharko dira, Udaltzaingoa, 09:30etik 20:00etara bitarte.

Txosnagunea indartuz

Tolosako tradizio inauterizaleari jarraituz, aurten ere ez da berrikuntza handirik izango.

Nabarmena izango da, ordea, txosnaguneko kontzertu zerronda; Ostegun Gizenetik bertatik hasita, Astelenita gaura bitarte, eskualdeko zein kanpoko hainbat musika estiloz gozatu ahal izango dute bertaratuek, eta besteak beste, honako taldeak igoko dira Euskal Herria plazako oholtzara: La Jodedera, Konbenio del Metal, Wainot, Ai ene, Skakeitan, Bizardunak, Izargi, 3gabe2, Laket, DJ Bull, DJ OGT eta Zesuma.

Azkenik, aipatzekoa da Tolosako Erraldoi eta buruhandien konpartsak aurrerantzean izango dituen bi kide berriak ere, inauterietan ingurumarietan aurkeztuko dituztela. Otsailaren 2an aurkeztuko dituzte, horrela, Aiz Orratz eta Ero Etxe elkarteei eskainitako buruhandiak, udaltxean.

Inauterietan erasoaren aurka

Inauteriak ate joka direla festa giroa nagusi den arren, Tolosako Udalak, aurten ere, eraso matxisten aurkako informazio puntua egokituko du Trianguloa plazan.

Era berean, Tolosaldeko Bilgune Feministak, inauterietan erasoaren bat gertatuko balitz, 24 ordutara salaketa mobilizazioen bidez plazaratzea eta udalean mozio bat aurkeztea eskatu du Jai Batzordean.



Tomas Hernandezek egin du aurtengo kartela. HITZA

Irudia Tolosa



SORMEN ANIZTASUNAZ

Tolosako BOX.A arte elkarteak, inauterietako kartel alternatiboa prestatu du. Sare sozialetan zabaltzeaz gain, herriko horma, denda nahiz tabernetan ikus daiteke, elkarteak diseinatutako kartela: «Inauteriak tolosarren festa handiak izanik, kartela egiteko aukerak irekia izan beharko luke herriko sortzaile guztientzat, sormen mugimendua eta aniztasuna bultzatzuz», aldarrikatu dute BOX.Ako kideek. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Huyck Wangner alemaniar multinazionalarena da Zizurkil Goian kokaturiko lantegia. i.t.

Zizurkilgo Huyck Wangner enpresako 75 langile kalean geratzeko arriskuan daude

Langileek salatu dutenez, enpresak irabaziak izan arren, lantegia ixteko asmoa du multinazionalak

Iñigo Terradillos Zizurkil

Zizurkil kokaturiko Huyck Wangner Spain SA enpresako 75 langile kalean geratu daitezke, izan ere, langileen batzordeak salatu duenez, kudeatzaileek lantegia itxi nahi dute. Langileek dagoeneko euren egoeraren salaketa jendaurrean egin dute, Zizurkil-en eta Villabonan pankartak jarri, ondorengo mezuekin: *Huyck Wangner enpresako 75 langile arriskuan eta enpresariak omurekin, Huyck Wangner ez itxi!* eta *Ez duzue lortuko!*

Langileek azaldu dutenaren arabera, «multinazionalaren zuzendaritzak 75 langile kaleratze-



Villabonan ere jarri dute enpresa ez ixtea eskatzen duen kartela. i.t.

ko asmoa du, enpresa bideragarria denean eta irabaziak dituenen». Halaber, gehitu dutenez, orain arte lantegiak «normaltasunez» funtzionatu du, eta horregatik, kaleratzen eta enpresaren itxieraren albisteak «ustekabe» harrapatu ditu langile guztiak. Azaldu dutenez, enpresaren zuzendaritza langileen ordezkaritzarekin jarri da harremanetan egoeraren berri emateko. Langileak aurkeztutako egoera azter-

tzen ari dira, eta datorren astelehenean egingo dute agerraldia hartu duten erabakiaren berri emateko.

Lantegia Zizurkil Goian dago, Altiturri industriagunean, eta 80 langile egiten dute lan. Aurretik Perot y Cia. izenez ezagutzen zen eta Tolosan zuen bere egoitza. Egun Huyck Wangner alemaniar multinazionalarena da enpresa. Paper industriarako ehun metalikoak egiten dituzte bertan.

Jon Jaunarena • Pilotaria

«Ahal dudan neurrian laguntzen saiatuko naiz»

I. Terradillos Leitza

Barriolarekin batera osatuko du bikotea Berasaluze VIII eta Albi-suren aurka, bihar Hendaian jokatu duen Binakako Lehen Mailako Pilota Txapelketako partidari. Bengoetxea VI.a eta Beroizen aurkako partida jokatu zuten Barriolak eta Xalak iragan asteburuan, eta lapurtarrak min hartu zuen. Ondorioz, hiru astez pilotalekuek at izango da. Enpresak Jon Jaunarena leitzarra aukeratu du bere lekua betetzeko. Iaz bigarren mailako txapelketa nagusi guzti-guztiak irabazi zituen, eta orain, estreinakoz jokatu du nagusien mailan.

Leitzarra «urduri», baina «pozik» dago eman dioten aukerarengatik.

Nola aurkitzen zara jasotako berriaren aurrean?

Oso pozik nago, horrelako partida bat jokatu dudalako. Jokatzeko irrikaz nago.

Espero al zenuen zuk betetzea Xalaren hutsunea?

Ez nuen espero. Lesionatu zenean beste pilotari batek bete behar zuela haren lekua esan zuten, baina nik Idoate edo Retegi izan zitezkeela ordezkoak pentsatu nuen. Enpresak ni aukeratu nau, beraz, oso gustura nago, eta ea partida espero bezala irteten den.

Lehenengo mailan jokatzeko duzun lehen partida izango da. Urduri al zaude?

Gogo handia dut maila honetan nola erantzuten dudan ikusteko. Urduri nago ez baitu inoiz jokatu lehen mailako partidarik, baina, aldi berean, gogotsu, partidaren eguna iristeko esperoan.

Bikotekidea, gainera, oso ezaguna: Abel Barriola.

Berak orain arte asko lagundu dit laguntzaile moduan, eta orain ni saiatuko naiz berari ahal dudan



neurrian laguntzen. Berak ni oso ongi ezagutzen nau, beraz, utes dut eta espero dut ondo moldatuko garela elkarrekin jokatzeko. Beraz, ea partida ona jokatzeko aukera dugun.

Xala hiru astez jokatu gabe izango da. Biharko partida soilik ala ondorengoak ere zuk jokatuko al dituzu?

Ez dakit. Nik dakidana da biharko partida jokatu dudala. Ez dakit ondorengo partidekin zer gertatuko den, nik jokatu dudana, ala beste norbaitek egingo duen.

Biharko partidaren arabera izango al da hori?

Ziurrenik bai. Biharko partida ongi ateratzen bada, agian nik jarraituko dut, eta aldiz, ez badut maila ematen, beste norbaitek jokatuko du.

Une honetan ez zinen txapelketan parte hartzen ari.

Ez. Partida bakan batzuk jokatzeko ari nintzen, baina txapelketa at. Enpresan bost aurrelari ginen norbaiten ordezko lekua beteko zain, eta azkenean kasu honetarako ni izan naiz aukeratu.

● leitzaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



11°
30°

GOIZA LAINOTUA
ARRATSALDEA LAINOTUA
BEROENA 14°
HOTZENA 8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Ibarrako merkatariek banatu dituzte sariak

Tolosa&Co elkarteak, agertu ez direnez, bi zenbaki berri atera ditu; Leitzako Kaxkabeltzak ere txartelak banatu ditu

Erredakzioa

Gabonen bueltan ohikoa izan ohi da merkatariek elkarteek egun horietan banatu dituzten txartelak sariak banatzea. Atzo, Ibarrako Merkatariek elkarteak banatu zituen sariak, Zubiaurre janari dendan. Eta bertan izan ziren hiru zortedunak saria jasotzen, kasu honetan, 150 euroko balioa duten txartelak jaso zituzten bertako saltokietan gastatzeko.

Tolosa&Co Merkatariek elkarteak, aldiz, ateratako hiru zenbakietatik bi zortedunak agertu ez direnez, ordezko bi zenbaki berriak atera behar izan dituzte. Solana 4ean egokitutako 39.219 zenbakiaren zorteduna Josune Mendizabal izan da. Beste bi zenbaki berriak hauek dira: 91.726 zenbakia Lardies Laboral dendan banatua, eta bigarrena, 79.875 zenba-



Ibarrako Merkatariek elkarteak sariak banatzen, atzo. I. TERRADILLOS

kia izan da Irritzitabernan banatua.

Leitzako Kaxkabeltza

Leitzako Kaxkabeltza dendari, ostalari eta zerbitzu elkarteak hila-bete honetan opari txartelak banatzen ari dira. Bestetik, Errege Magoen desfilean atera zituzten hiru irabazleen izenak atera dituzte zozketa kutxatik: Mila Sestorain (500 euro), Itziar Telletxea (400 euro) eta Javier Iparragirre (300 euro). Hilabete honetan be-

raiek nahi duten denda, ostatu eta zerbitzuetan gastatu dezakete, eta horretarako azken eguna bihar izango da. Ipuin kontalaria eta txokolate jatea ere antolatutuzten, eta Kaxkabeltza elkarte-ko kideak «pozik» agertu dira izan duen «arrakasta» ikusita. Eskerrak eman nahi dizkiete herri-tarrei, eta orain arte bezain parte hartzaile izaten jarraitzeko esan dute. Otsailean beste aktibitate bat antolatu nahi dutela adierazi dute elkartetik.

Agenda

BESTELAKOAK

■ **Anoeta.** Gaur, 19:00etan, Dantza Soka eguna antolatzeko bilera egingo dute, udaletxean.

■ **Berastegi.** Inauterietako aforian izena emateko epea zabalik dago, hilaren 28a bitartean. Helduek 18 euro ordaindu beharko dute, eta 18 urtetik behar-koek bakoitzak bere aforia emateko aukera izango dute. Hala ere, guztiek eman behar dute izena. Txartelak, Urepele elkarteak, Zelai tabernan edota udaletxean daude.

■ **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkar-teak urtero antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat. Elkar-teak elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu. Produktuak udaletxean utzi behar dira.

■ **Ibarra.** Langostino Moto kultur elkarteak irteera antolatu du, hilaren 27rako. Ibarratik abiatu eta Tolosa, Urnieta, Astigarraga, Oiartzun zeharkatuko dituzte bertan hamaiketako egiteko. Bueltan Ibarra itzuliko dira. Parte hartu nahi dutenek, izena eman behar dute 675 7125 05 telefono zenbakian.

■ **Alegia.** Saharara bidaltzeko produktu bilketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.

■ **Tolosa.** Aitzol Udal Euskaltegian hilaren 28tik otsailaren 6ra bitartean matrikulatzeko aukera egongo da. 09:00etatik 13:00etara izango da aukera, eta informazio gehiagorako 943 651006 edo 943652343 telefonoetara dei daiteke.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

■ **Tolosa.** *Emak bakia* filma eta solasaldia izango da, gaur, Os-

car Alegria zuzendariarekin. 19:15ean euskaraz azpigitulatu-ta, eta 21:45 gazteleraz azpigitulatu-ta eskainiko dute, Leidorren.

IKASTAROAK

■ **Anoeta.** Ibilaldi nordikoko ikastaroan parte hartu nahi duenak, hilaren 24a baino lehen eman beharko du izena, liburutegian edota kiroldegian. Ikastaroa, hiru orduko izango da, eta hilaren 26ean, larunbatean izango da, 10:00etan. 10 euro ordaindu beharko da.

■ **Villabona-Zizurkil.** Maila aurreratuko sukaldaritza ikastaroan izena emateko azken eguna da gaurkoa. Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolatu dute, eta izena villabonako udalean eman behar da. Hilaren 28an hasi eta martxoaren 4ean bukatuko da. Astelehenetan eta asteazkenetan izango da, Villabonako Irritzitabernan 19:00etatik 21:00etara. Bertakoek 58 euro eta kanpokoek 75 euro ordaindu beharko dute.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Aurpegi taldearen, *Aurpegi is different* erakusketa dago ikusgai, Topic zentroan. Otsailaren 1a bitartean egongo da.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarreta lorategiak, 1. Telefonoa: 943 6738 49.
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-ten eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Denboralearen argazki lehiaketa

Bidali Tolosaldean eta Leitzaldean ateratako denboralearen argazkiak:

tolosaldean@hitza.info

*argazkien gutxienezkoak: 20 cm-ko zabalera eta 300eko bareizmena

Parte hartzaileen artean Hitzaren materialez osaturiko sorta zozkatuko dugu

TOLOSALDEKO hitza info
ETA LEITZALDEKO

*parte hartzeko azken eguna:
Urtarrilak 28

